

Badakizue nor naizen? Zelan? Bai, Lorentxo naiz, noizean behin, zuei laguntzera eta lana ematera etortzen den laguna.

Aizue, eta, zer moduz zabilzate?

Eskola dela, etxeko lanak direla, beti daukazue zerbait egiteko, ezta? Beno, beno, ez kezatu, hemen ondo pasatzen duzue, ezta? Hori uste dut behintzat.

Eta, pentsatuko duzue, zer ekarri ote du oraingoan Lorentxok? Ikusi-makusi, zer ikusi? Beñat eta Iratiren etxea!

Beno, orain ikusi, ez duzue ikusiko, imajinatu egin behar duzue zelako etxea egingo duzuen. Eta amaitutakoan, ta txan!!! Gelako beste guztiei azalduko diezue zelakoa egin duzuen.

Agian, ozen-ozen kontatzen baduzue, nik ere entzun ahal izango dut, zer uste duzue?

Gero arte, Bonaparte!

